



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

zuzendariari@egunkaria.com

943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Jauntxoa eta mailegua

– Zer iritziko genioke herri bateko lur gehienak familia batenak direla eta beste herrikideek belaunaldiz belau-
naldi jauntxoaren lurak lantzea beste irtenbiderik izan ez dutela ba-
geneki?

– Eta lurjabeak txirotasunetik ir-
ten zitezen interes txikian mailegu
bat eskainiko balie?

– Eta handik puska batetara inte-
resak bikoiztu eta soldata laurden
batean jaitsiko balie?

– Eta baldintza berri horietan zo-
rra itzuli ezinak bultzatuta nekaza-
riak jauntxoarengana joandakoan,
honek lan gehiago egitera eta zorra
hasieran erabakitako epeetan or-
daintzen jarrai zezaten lehengoak
baino interes altuagoan mailegu be-
rriak onartzera behartuko balitu?

– Eta lehen mailegua eta 50 urte
beranduago nekazariak sekula bai-
na txiroago sekula baino soldata txi-
kiagoen trukean jauntxoaren lurak
lantzea beste aukerarik gabe jarrai-
tzeaz gain, etengabe handituko zen
zor baten menpe baleude?

Hau da ba 2000. urte honetan
1.000.000.000 gizaki baino gehiago-
ren historia.

Iparraldeko herri aberatsak izan
ginen 80. hamarkadaren hasieran
geure interessei jarraituz mailegu
haien baldintzak aldatu genituenak
(maileguen interesak laukoiztera
heldu ziren eta mineral eta nekazal
produktuen prezioek oraindik gelditu
ez den beherako bideari ekin zio-
ten) eta gu beraz kanpo zorraren kri-
sia sortu genuenak. Baldintzen alda-
ketak herrialde txiro gehienak
maileguak itzultzeko ezintasunera
eraman zituen eta gaur, 20 urte gero,
horrela darraite.

Horregatik dagokigu guri kanpo

zorra ezabatzea, neurri handi batean
gu izan baikara arazoaren sortzaile-
ak. **Beñat Arzadun Olaizola** • (Ha-
rreman GGKEko kidea)

Pikeren biraoak

Irabazi ezkerro, bulegari bila etorriko
zaigu ahoa bete fusil. Lasai Pike, ohi-
tuak gauzkazu, zure aurrekoek be-
zalaxe, Bueren/Atutxak zuzenduta-
ko polizi indigenaren razziak ahaztu
gabe. Patu petrala zinez, euskal he-
rritarrek bakarrik sentitzen diren
%30etik gorakoena. (%-a zentzu po-
litikoan, ez lanbidez arabera). Baina
eskertzen da zure ahalegina. Benetan
larrugorritan utzi dituzu milaka milioi
ordaindutako ikerketa estratejiko ultra
sekretuak, euskotarra menderatzeko
bideratutakoak hain zuzen.

Iragarri duzun pertsekuzio politi-
koa, oso-oso eskuin muturrean ko-
katzen da, nazismo aurreratuan. Helduko
diren epailetan ere, zure adierazpenak
agertu beharko dira. Eta Europar, zilegi
da adierazpen askatasuna, onartuta dago
giza eskubide moduan, hala uste behintzat.

Ez dakit Lizarra-Garazik, Goros-
tiagak, Jaurlaritzak edo nork, baina
norbaitek eraman beharko zituzkeen
Pikeren biraoak Europara, La Fon-
taine-renganaino gutxienez, eta, bi-
de batez, beste hainbeste Europar
Batasuneko instituzioetara. Eta iku-
siko genuke zer nolako demokrazi
maila dagoen Europar, zeren denak
asaldatzen dira Austriako afera dela
eta, Turkia halako estatu bat sartze-
kotan dagoelarik.

La Fontaine, PP Europarrekoa iza-
nik, estualdian gertatuko litzateke.
Bere alderdikide den bat kritikatu?
Joxe M. Aspiunza • MUNDAKA
(BIZKAIA)

Goierri Lanbide Eskolan demokrazia ikasleontzat!

Gatazkaren mamia greba araudia-
ren barne, abstentzioarekiko azal-
tzen den indeterminazioa erabiliz,
zuzendaritzak ikasleekin kontsentsu
batera iritsi gabe zuzenean kontseilu
eskolarrera eramatea erabaki zuene-
an datza. Zuzendaritzak, kontuan
hartuta, bertan irakaskuntzarekin
zuzenean harremanik ez duten (3
udaletako ordezkari politikoak) or-
dezkariek daudela. Ordezkariek hauek
ikasleoi bakarrik dagozkigun gaietan
(greba prozesua, e.a.) ikasleok haina
erabaki ahalmen dute. Kontseilu es-
kolarreko ikasleen ordezkarien ustez
ikasleoi dagozkigun gaietan ikasleok
eduki behar dugu hitza eta erabakia.

Zuzendaritzak indarrean ezarrita-
ko arauak anonimotasuna gordetzen
badu ere, ez du bermatzen alde bate-
tik greba prozesuan parte hartu du-
ten ikasleek prozesuko emaitza
errespetatuko dutenik, eta bestalde
ez du bermatzen klasean gertatzeko
aukera egin duten ikasleen asisten-
tzia; jakinik Goierri Lanbide Eskolan
klase asistentzia ezinbestekotzat
arauturik dagoela.

Ikasleok aurkeztutako proposa-
menak berriz anonimatoaz gain kla-
se asistentzia ere bermatzen du.

Hau honela izanik astelehena,
otsailak 14, ikasleok eginiko batza-
rrak klaseak etetea erabaki zuen, zu-
zendaritzak ikasleonen proposamena
aintzakotzat hartu arte. 3 eguneko
borrokaren ostean zuzendaritzak
ikasleonen ordezkari guztiekin eta ira-
kasleonen ordezkariarekin eginiko bile-
ran ikasleonen proposamena aurrera
atera zen. **Joseba Hernandez, Mikel
Luloaga, Mixel Zurutuza** • (Goierri
Lanbide Eskolako kontseilu eskola-
rreko ikasleonen ordezkariak)

galdeiozu...



Alfonso Alonso

GASTEIZKO ALKATEA

**Santa Maria ikastetxearen
arazoan ez al zarete
«integrazio nahia»
aitzakiatzat erabiltzen ari A
eredua defendatzeko? D
ereduan ez al da etorkinen
integrazioa ematen?**

Urko Aierbe [Gasteiz]

■ **SANTA MARIA** mantentzea de-
fendatzen dugu integrazio bidea
delako: bertako ikasleek %70 etor-
kinak dira, eta A eredua aukeratu
dute. Ikastetxe hau ixteak eta Ra-
mon Bajora joateak —hau urruna-
go dago eta instalazio kaskarrago-
ak ditu— ikasleak beste eskola ba-
tuetan sakabanatzea ekar dezake,
eta irakaskuntza eredua gurasoek
aukeratutakoa ez izatea. Ez dugu
inola ere planteatzen D ereduak
etorkinen integrazioa bermatzen
ez duenik. Gurasoek seme-alabentzat
nahi duten eredua aukera dezaten
babesten dugu, eta eredu hori edu-
kazio aldetik kalitatezkoa eta instalazio
egokiak dituen izatea nahi dugu.

Otsailaren 29tik aurrera
Arantxa Urretabizkaia

• IDAZLEA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

